

www.euskadi.eus/aztertu

aztertu

Ibaialde

2021



aldizkaria



Argazkia: Iosu Karrera Uribe

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



COVID-19ak zailtasunak eragin baditu ere, 452 pertsonak parte hartu dute Ibaialde 2020 laginketa kanpaina

A pesar de las dificultades producidas por la COVID-19, 452 personas han participado en la campaña de muestreo Ibaialde 2020

IBAIALDE 2020 kanpainak, urte bereko otsaila eta ekaina bitartean burutu zena, ezustekoa hartu zuen martxoaren 15ean osasun larrialdi egoera dekretatu zenean eta guztiok gure etxeetan konfinatuta egon behar izan genuenean. Momentu hartan IBAIALDE 2020 kanpaina guztiz murgilduta geunden eta hainbat ekintza bertan behera utzi behar izan genituen, horien artean, laginketarena. Hainbat taldek izena emana zuten kanpaina parte hartzeko, baina konfinamenduaren ondorioz eta laginketa egiteko zailtasunak ikusita askok bertan behera utzi zuten.

Hala ere, **80 taldek aurrera jarraitzeko interesa** erakutsi zuten eta laginketa egin ahal izateko materiala bidali genien. Horietako batzuek ikertutako ibaiaren emaitzak bidali dituzte, **35 laginketa** eginez eta **25 ibai-tarte** desberdin ikertuz.

Kanpaina zehar **159 motxila (análisi-kit) banatu dira** izena eman zuten 80 talde horien artean. Motxila bakoitzaren barruan uraren kalitatea ikertzeko beharrezkoak diren materialak daude, baita ibaietako egoera ekologikoa aztertzeko lagungarriak izango diren txostenak eta galdetegiak ere.

Taldeek lortutako emaitzek ekosistemaren egoeraren ezagutzan laguntzen gaituzte, hiru ikuspegi ezberdin aintzat hartuz: **URAREN KALITATEA, BIODIBERTSITATEA, eta GIZAKIAREN ERAGINA.**

3 faktore horietan **emaitza positiboak** lortuz gero, ekosistemaren egoera (ibaiaren kalitatea) **oso ona** dela esan genezake; **2 faktore positibo** lortuta **egoera ona** dela diogu; **faktore positibo bakarrak** egoera **onargarria** adierazten digu (nabarmenki hobea izan daitekeena); eta **3 faktoreak** emaitza **negatiboak** badituzte **egoera txarra** dela esango dugu.

Jasotako emaitzen arabera ikertutako ibai-tarte ia gehienek kalitatea **oso ona** dela esan dezakegu. 2019ko kanpaina aztertutako puntuen %48 kalitate oso onekoak ziren, aurtengo berriz **%57**. Kontuan izan behar dugu aurtengo laginketa gutxiago egin direla eta aurreko urteetako datuekin alderatzea zaila dela.

La campaña IBAIALDE 2020, que se ha llevado a cabo entre los meses de febrero y junio del mismo año, se encontró con una sorpresa cuando el 15 de marzo se decretó el estado de emergencia sanitaria y todos tuvimos que confinarnos en nuestras casas. En ese momento estábamos totalmente inmersos en la campaña IBAIALDE 2020 y tuvimos que dejar suspendidas varias actividades, entre ellas, la del muestreo. Muchos grupos ya se habían apuntado para participar en la campaña, pero ante las dificultades para realizar el muestreo por el confinamiento un gran número se dieron de baja.

Sin embargo, casi **80 grupos mostraron interés en seguir adelante**, por lo que se les envió el material para poder realizar el muestreo. De ellos, varios son los que han enviado los resultados del río analizado, realizando un total de **35 muestreos** y analizando **25 tramos fluviales diferentes**.


A lo largo de la campaña se han repartido **159 mochilas (kits de análisis)** entre los 80 grupos. Dentro de cada mochila encontramos los materiales necesarios para analizar la calidad del agua, además de los cuestionarios que nos ayudarán a evaluar el estado ecológico de cada río.

Los resultados obtenidos por los grupos nos ayudan a conocer el estado del ecosistema fluvial desde tres puntos de vista diferentes: la **CALIDAD DEL AGUA**, la **BIODIVERSIDAD**, y el **IMPACTO HUMANO**.


En caso de obtener **resultados positivos** en los **3 factores** se define el estado del ecosistema (calidad ambiental del río) como **muy bueno**; con **2 factores positivos** se define como **bueno**; con **un solo factor positivo** será **aceptable** (claramente mejorable); y con los **3 factores negativos** definimos el estado ambiental analizado como **malo**.


Conforme a los resultados recibidos podemos decir que casi todos los ríos analizados gozan de **muy buena** salud. En 2019 los puntos considerados de muy buena calidad fueron el 48%,

AZTERTUTAKO PUNTU DESBERDINEN KALITATEA
CALIDAD DE LOS DIFERENTES PUNTOS ANALIZADOS



3 FAKTOREEN BALORAZIO POSITIBO ETA NEGATIBOAK
VALORACIONES POSITIVAS Y NEGATIVAS DE LOS 3 FACTORES





Illo horretan, aipatzekoa da egindako laginketen %82ak **kalitate ona** edo **oso ona** erakusten dutela, aurreko urtean bezala.

Emaizta negatiboak islatzen dituzten puntuak %17 bakarrik dira, batez ere gune oso eraldatueta eta gizakiaren etengabeko presiopean kokatzen direnak: industria guneak, hiriguneak (eta gertuko zonaldeak), obrak martxan dauden tokiak, hondakinak metatzen diren puntuak eta isurketa puntuak.

Emaizta **positibo gehien eman dituen faktorea uraren kalitatearena da**. Leku gehienetan, aurretik existitzen ziren isurketen kudeaketak gure ibaien uraren balio fisiko-kimikoak zuzenak izatea ahalbidetu du. Hala ere, uraren kalitate horrek

mientras que este año se trata del **57%**. Debemos tener en cuenta que este año se han realizado menos muestreos y es difícil compararlos con los datos del año anterior.

En este sentido, es de mencionar que el 82% de los muestreos realizados muestran una calidad **buena** o **muy buena**, al igual que el año anterior.

Los puntos con **resultados negativos** suman únicamente el **17%** del total, y sobre todo se concentran en zonas muy alteradas y en constante presión por la actividad humana: zonas industriales, áreas (peri)-urbanas, puntos con obras en ejecución, áreas donde se concentran residuos o puntos de vertido, etc.



Koronabirusaren hedapenetik babesten gaituzten maskara higieniko, eskularru kirurgiko eta hainbat produktu desinfektatzailek, kaleetan, itsasoetan eta gure erreketan bukatzen dute askotan. Irudi hori, tamalez, asko errepikatzen ari da azken hilabeteetan. Ingurune natural batean utzitako maskara higieniko batek 300-400 urte behar ditu degradatzeko!

Mascarillas higiénicas, guantes quirúrgicos y productos desinfectantes, que nos protegen de la propagación del coronavirus, terminan en las calles, en los mares y en los ríos en muchas ocasiones. Una imagen que, lamentablemente, se está repitiendo en los últimos meses. Una mascarilla higiénica, abandonada en un entorno natural tarda en degradarse ¡entre 300 y 400 años!



behera egiten du hirigune handiak edo industrialdeak dauden tarteetan.

Bestalde, laginketen ia erdiak arazoak adierazten dituzte biodibertsitatean edo gizakiaren eraginean, hala espezie inbaditzaileen agerpenagatik, nola zenbatutako hondakinengatik (batez ere uholdeek eta euriteek barreiatutakoak). Aurten, talde batzuek COVID-19aren ondoriozko hondakinak aipatu dituzte txostenetan, muxukoak edo plastikozko eskularruak besteak beste.

Azpimarratzekoa da laginketen %26ak espezie inbaditzaileen presentzia adierazten duela. Landarediaren artean bereizgarrienak *Robinia pseudoacacia* (Akazia faltsua) eta *Cortaderia selloana* (Panpako lezka). Faunari dagokion atalean aipatzekoa da Inglares ibaian behatu den seinalea ibai-karramarroaren presentzia.

Bukatzeko, gure ibaien egoera ekologikoa ezagutzeko beharrezkoak ditugun txostenak egiten parte hartu duten talde eta pertsona guztiei egindako lana eta ahalegina eskertu nahi diegu. Era berean, eginkizun hain garrantzitsua burutzen jarraitzera animatu nahi zaituztegu, urtero onura amankomun batenatik elkarlanean jartzen gaituena.

El factor que **mejores resultados muestra** es el de **calidad del agua**. La correcta gestión de los vertidos establecida en la mayoría de los lugares permite que los parámetros físico-químicos del agua de nuestros ríos sean correctos. Sin embargo, esta la calidad del agua disminuye en los tramos en los que existen grandes núcleos urbanos o polígonos industriales.

Por otro lado, casi la mitad de los muestreos muestran problemas con los factores biodiversidad e influencia humana, tanto por la presencia de especies invasoras como por la cantidad de residuos contabilizados (principalmente debido a inundaciones y fuertes lluvias). Este año, algunos grupos han mencionado en sus informes residuos derivados de la COVID-19, como mascarillas o guantes de plástico, entre otros.

Cabe destacar que el 26% de los muestreos indican la presencia de especies invasoras. Las especies vegetales más nombradas son *Robinia pseudoacacia* (falsa acacia) y *Cortaderia selloana* (plumero de la pampa). En el apartado de fauna cabe destacar la presencia de cangrejo señal, citado en el río Inglares.

Para terminar, queremos agradecer el trabajo y el esfuerzo realizado a todos los grupos y personas que han participado en la elaboración de los informes que nos ayudan a conocer el estado ecológico de nuestros ríos. Asimismo, os animamos a seguir desarrollando esta tarea tan importante que cada año nos pone en colaboración por un beneficio común.

Parte-hartzaileak Participantes

ALFONSO DE ANDRÉS	Portugalete
ARANZADI IKASTOLA	Bergara
AZTERLARIAK	Vitoria-Gasteiz
BATZ S. COOP. AUTOMOCIÓN	Igorre
CIHMA	Barakaldo
EDER BALTZISKUETA	Bilbo
EGIBIDE NIEVES CANO	Vitoria-Gasteiz
HERRI BIDEAK KATE BARIK	Erandio
JAKINTZA IKASTOLA	Ordizia
SANTA MARIA IKASTETXEA	Portugalete
WWF BIZKAIA	Bilbo
TXINGUDI IKASTOLA	Irun
FABIAN LEGORBURU	Llodio

La deforestación de los bosques naturales para la reutilización del suelo para la plantación de especies madereras (eucalipto, pino...) o la generación de pastos y cultivos, favorece la fragmentación de los ecosistemas naturales. Muchas especies desaparecen o se ven obligadas a buscar otro lugar al no poder adaptarse a la nueva realidad.



Corredores ecológicos

El aumento de la población humana, la sobreexplotación de los recursos naturales, la ocupación del suelo y la transformación del territorio están acelerando enormemente la fragmentación de los ecosistemas naturales, poniendo el peligro a multitud de especies y afectando a su capacidad de dispersión.

Es por ello que, la destrucción y la fragmentación de los hábitats naturales y seminaturales se perfila actualmente como uno de los principales problemas ambientales, el cual debemos afrontar para asegurar el equilibrio del sistema.

Por suerte, existe una creciente toma de conciencia sobre la importancia de mantener las conexiones ecológicas entre los distintos espacios naturales dentro del territorio. De esta manera se asegura y garantiza la movilidad de las especies presentes y el intercambio genético de las mismas, evitando así su aislamiento y posibles problemas genéticos.

¿QUÉ ES UN CORREDOR ECOLÓGICO?


Los corredores ecológicos o corredores verdes son sistemas que forman parte del territorio que pretenden garantizar el contacto físico entre hábitats, limitando así la fragmentación de los ecosistemas.

Está demostrado que el establecimiento de corredores ecológicos es una estrategia efectiva de conservación, ya que mantiene la composición, la estructura y las funciones de los ecosistemas y de las áreas que unen.

MÚLTIPLES BENEFICIOS

Son múltiples los beneficios que aportan estas "herramientas ecológicas":

- Facilitan los desplazamientos de la fauna impidiendo de esta manera el aislamiento de las poblaciones y su posible extinción.
- Mantienen la variabilidad genética y previenen la endogamia.
- Aumentan o mantienen la biodiversidad.
- Permiten el restablecimiento de poblaciones localmente extintas.
- Proveen de hábitat, refugio y otros recursos a numerosas especies silvestres minorizando su interacción con los humanos.



El establecimiento de la Red de Corredores Ecológicos de Euskadi tiene como objetivo principal fomentar la conexión de aquellos espacios de la Red Natura 2000 con hábitats y especies que sufren una fragmentación evidente a escala regional.

ALGÚN QUE OTRO "PERO"...

A pesar de sus importantes beneficios, los corredores ecológicos también tienen sus aspectos negativos.

Por un lado, contribuyen a aumentar la dispersión de especies exóticas. Aunque es cierto que muchas especies invasoras no necesitan de los corredores ecológicos para ocupar el territorio, ya que tienen una enorme capacidad de adaptación y colonización, los corredores ecológicos pueden contribuir a su rápida expansión. Así como a la propagación de plagas, parásitos y enfermedades.

A pesar de sus inconvenientes, la comunidad científica asegura que la creación y el mantenimiento de estos pasillos ecológicos es imprescindible. Para ello, es necesario conocer qué hábitats sufren el problema y cuáles de ellos pueden converger potencialmente.

El ciervo (*Cervus elaphus*) es uno de los mamíferos que se ven afectados por la fragmentación del paisaje y la humanización del medio. Sus poblaciones en Euskadi se limitan a núcleos separados entre sí (Gorbea y Karrantza en su caso).



Santa Maria ikastetxearen esperientzia COVID garaian

2020ko martxoaren 15ean, larrialdi egoera dekretatu zenean, ikastetxe guztien ateak itxi ziren eta ikasleek etxean konfinatuta geratu behar izan zuten. Honen ondorioz Aztertu Programako hainbat ekintza “izoztuta” geratu ziren, horien artean IBAIALDE kanpainako laginketa. Ekintza honetan mota askotako taldeek parte hartzen dute (familiak, elkarteak...) baina gehienbat ikastetxeak izan ohi dira.

Horietako bat Portugaleteko Santa Maria Ikastetxea da. Hainbat urte daramatzate Santa Mariako ikasleek Aztertu Programako laginketetan parte hartzen, Ander Cuevas irakaslearen eskutik, baina azkenengo kanpaina honetan gauzak egiteko modua moldatau behar izan dute.

Urtero parte hartzen duzu ikastetxeko ikasleekin baina oraingoan nola egin zenuen?

Duela urte batzuetatik hona planteamendua izan da Azterkosta DBH 4ko ikasleekin egitea, Biologia-Geologia ikasgaiaren barruan. Ibaialde, berriz, DBH 1eko Ikerketa Zientifiko ikasgaiko ikasleekin. Horrela ekintza programazioen barruan txertatuta geratzen zen.

Iaz, konfinamendua zela eta, nahiko aparte utzi genuen gaia, baina maiatza amaieran egiteko beharra ikusi nuen. Hasieran, nik nire kabuz egitea pentsatu nuen, baina “libre” geratu ginean ikasleei proposatu nien beraien gurasoekin hitz egitea, eta nahi zutenek egun batean ibaira hurbiltzea neurketak egiteko. Azkenean hiru familia eta nire arreba eta lobak apuntatu ziren abentura honetara.

Zergatik aukeratu duzue Bolintxu ibaia aurten ikerketa egiteko eta ez Ballonti ibaia aurreko urteetan bezala?

Konfinamendutik atera ginenean Ballonti ibaian denok batera eta distantziak mantenduz laginketak egiteko oso txikia zela ohartu nintzen. Gainera, egun batzuk aurretik hurbildu nintzen eta ia-ia lehor zegoen. Orduan, nora joan?

Etxean, pentsatu ondoren, ideia on bat burura etorri zitzaidan: Bolintxu. Nik, nire kabuz azterketa eginda neukan Bolintxu errekan eta gainera leku paregabea da ezagutzen ez dutenei

erakusteko. Ikasleei proposatu nien, eta ados egonda asteburu batean elkartu ginen eta bi puntu desberdinetan egin genuen: Bolintxuko basoan, presaren azpitik, erreka modu naturalean jaisten den tokian, eta Abusu auzoan, erreka Nerbioi-Ibaizabal ibaira isuri baino lehen. Bertan kanalizatuta dago.

Nola moldatau zineten ibaiaren ikerketa egiteko?

Abusutik ibilaldira bat eginez igo ginen Bolintxuko presaraino. Ur-jauzia ikusi eta Seberetxeko bideraino igo ginen ondoren. Itzultzean, presa baino metro batzuk beherago lehenengo guneko neurketak egiten genituen. Nik azalpenak emanda guraso eta umeen artean egin zituzten neurketak. Aztertu programako hezitzaileekin formakuntza irteeratan egiten dugun moduan. Bertan, datuak apuntatu genituen eramandako paperezko txostenetan eta gero nik garbira pasa nituen. Abusura bueltatu ginen, eta bertan berriz ere ura hartuta, hango mahaletan egin genituen neurketak.

Zer iruditu zitzairen esperientzia?

Ikasleak poz-pozik zeuden leku ezberdin eta berri batean ikastetxearekin lotutako zerbait egiteagatik. Gurasoak pozik egindako lanagatik, asteburu batean, irakasle batekin eta ikastetxetik at. Esperientzia polita izan zela uste dut, mantendu beharrekoa, holako ekintzekin ikasleek benetan ikasten dutelako. Oso praktikoa. Tokian bertan, uraren kalitatearen adierazle diren animaliatxoak bilatzen harrien azpian; betirako gordeko duten zerbait da.

Programan parte hartzen jarraitzeko eskatu zidaten. Eta ni poz-pozik guraso batzuek seme-alabak laguntzen asteburu batean ikastetxeko ekintza batean parte hartzen ikusteagatik.

Ibaialde Lehiaketa



Concurso Ibaialde

IBAIALDE 2020 lehiaketan 332 marrazkik eta 389 argazkik parte hartu dute, 3 kategoriak kontuan hartuz: 0-10 urte bitartekoak, 11-15 urte bitartekoak, eta 16 urte edo nagusiagoak.

Ikasleak, irakasleak, familiak, banakakoak... mota guztietako parte-hartzaileak aurkeztu dituzte egindako lanak, "Gure ibaiak" leloa oinarri hartuta.

2021eko otsailean ospatu den sari banaketan marrazki eta argazki esanguratsuenak saritu dira. Ondoren aurkezten dizkizuegu.

332 dibujos y 389 fotografías han tomado parte en el concurso IBAIALDE 2020 sumando las tres categorías: entre 0-10 años, entre 11-15 años, y más de 16 años.

Profesorado, alumnas y alumnos, familias, personas a título individual... participantes de todo tipo han presentado sus trabajos bajo el lema "Nuestros ríos".

En la entrega de premios celebrada en febrero de 2021 fueron premiados los trabajos más destacados. Os los presentamos a continuación.

MARRAZKI IRABAZLEAK / DIBUJOS GANADORES

1. KATEGORIA (0-10 urte)



Accésit ≤5 urte

Ane Fuentes
(Altza Herri eskola)



Aitana Durán
(Maristas Zalla)

2. KATEGORIA (11-15 urte)



Gabriela Cid
(Karmengo Ama Ikastetxea)

3. KATEGORIA (≥16 urte)



Gloria Zuloaga
(Banakakoa)

ARGAZKI IRABAZLEAK / FOTOGRAFÍAS GANADORAS

1. KATEGORIA (0-10 urte)



Iker Manzano (Mujika eskola)

2. KATEGORIA (11-15 urte)



Haritz Arregi (Zuozola - Larraña BHI)

3. KATEGORIA (≥16 urte)



Beñat Totorika (Banakakoa)

AZTERTU etxean

Konfinamenduan martxan jarritako ekimen berezia izan da. QUIZ joko baten bitartez gure inguru naturala hobeto ezagutu genuen (ekosistemak, espezieak, eremu babestuek...), bai eta ingurumena babesteko martxan jarri daitezkeen ekintzak birpasatu ere.

Galdera gehien asmatu dituztenek podium hau osatu dute:

Una iniciativa especial puesta en marcha durante el confinamiento. A través de un juego QUIZ conocimos mejor nuestro medio natural (ecosistemas, especies, zonas protegidas...) y repasamos las acciones que se pueden poner en marcha para proteger el medio ambiente.

Quienes más preguntas han acertado han completado el siguiente podio:

1. LUR
Elgoibar Ikastola

2. ANDONIMB
Soloarte IPI
(Basauri)

3. IBILTZAILEA
S.C. Corazonistas
(Vitoria-Gasteiz)

EKINAREN EGUNA

Aurtengo kanpaina IX. Ekinaren Eguna ospatuko dugu. Era berean, eta ekintza honekin batera, maiatzak 17tik 23rako astean bederatzigarren Ekinaren Astea jarriko da martxan. Epe horretan ingurumenaren aldeko ekintza zehatz bat burutzeraz animatu nahi zaituztegu. Informazio gehiago jasoko duzue datak heldu aurretik.

En la campaña de este año celebraremos el IX. Ekinaren Eguna. De igual modo, durante la semana del 17 al 23 de mayo se pondrá en marcha la novena edición de Ekinaren Astea, y queremos animaros a realizar una actividad concreta en favor del medio ambiente dentro de este periodo. Recibiréis más información antes de dichas fechas.



IBAIALDE 2021

PARTE HARTU!
¡PARTICIPA!

902 160 138

aztertu@euskadi.eus

- » LAGINKETA
MUESTREO
- » ERAKUSKETA BERRIA
NUEVA EXPOSICIÓN
- » LEHIAKETA
CONCURSO
- » TXOTXONGILOAK
TÍTRES
- » IBAIALDE TXIKI
- » FORMAKUNTZA IRTEERA
SALIDA FORMATIVA

EGUTEGIA IBAIALDE 2021 CALENDARIO

OTSAILA

FEBRERO

MARTXOA

MARZO

a/l	a/m	a/m	o/j	o/v	l/s	i/d
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

a/l	a/m	a/m	o/j	o/v	l/s	i/d
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

MAIATZA

MAYO

EKAINA

JUNIO

a/l	a/m	a/m	o/j	o/v	l/s	i/d
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24/31	25	26	27	28	29	30

a/l	a/m	a/m	o/j	o/v	l/s	i/d
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

KANPAINA IBAIALDE 2021 CAMPAÑA

IBAIALDE 2021 kanpainaren hasiera eta amaiera.
Lehiaketarako obrak aurkezteko azken eguna
Comienzo y final de la campaña IBAIALDE 2021.
Último día para presentar obras para el concurso

IBAIALDE TXIKI materialak eta "ERREKA MARI"
antzezlan eskatzeko datak
Solicitud de materiales IBAIALDE TXIKI y solicitar
"ERREKA MARI"

Erakusketa eskatzeko datak
Fechas para solicitar la exposición

Prestakuntzako irteera tematikoa
Salida temática formativa

EKINAREN ASTEA
Ingurumenaren alde ekimen bat aurrera erama-
teko astea.
Informazio osoa aldeaz aurretik helaraziko dizuegu
Semana para realizar una actividad en favor del
medio ambiente.
Haremos llegar toda la información con
antelación

Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

informazio gehiago / más información
www.euskadi.eus/aztertu

aztertu

2021

Ingurugela

BILBAO:	944 031 870
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN:	943 023 102
VITORIA-GASTEIZ:	945 019 880
LEGAZPI:	943 023 104

Ale kopurua: 500
Tirada:
©

Argitaratzailea:
Edita:
Inprimaketa:
Impresión:
ISSN: 2386-9399 • L.G.: BI 3189-2000

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente
Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Gráficas Dosbi, S.L.